



## UDAL BATZORDEEN BERRI


LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2017/11/14)</b>	Web orria	Dagoeneko amaituta, batzordekideontzat jarriko da ikusgai, doikuntzak edo aldaketak egin behar badira ere.	Publikoarentzat ireki
	Ibur hipika	Ibur hipikakoek herritarrentzat duen eskaintza berezia Itsaso whatsapp taldean zabaltzea erabaki da, aurrez lburkoekin hitz eginda.	
Hurrengo saioa: 2017/11/28	Konektibitatea herrian	Movistarren eskaintza herriko etxebizitza guztietara iristea denez, eta jartzen duten baldintza bakarra etxebizitza bakoitzeko titularraren izena, NAN eta telefono zenbakia biltzea denez, etxe bakoitzera joango gara datu hauek jasotzea. Etxebizitzako atariraino fibraren kablea jartzea dohako zerbitzua da eta ez dago inongo kontraturik sinatzeko konpromisorik.	Datu bilketa egin eta Movistarrekoei pasa.
	Euskararen eguna	Abenduaren 3rako talde irakurketa eta ondoren tertulia egiteko proposamena plazaratu da	Liburua aukeratu, gonbita luzatu eta behar adina liburu eskuratu.



LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Ekimen sozio-kulturalak (2017/11/17)</b>  Hurrengo saioa: 2017/12/01	Auzolana	Egoki antolatuta dagoela berrikusi da: taldeak, arduradunak, materialak.. 50 lagun inguru lanerako zein afaltzeko	Balorazioa egingo da
	Jubilatu eguna	Egoki antolatuta dagoela berrikusi da: korala, organista, dantza taldea eta txistulariak eta 50 lagun bazkaltzeko. Baita bazkal ondoren banatuko den argazkia eta bertsoaren gauzatzea ere.	Etorri ezin direnei etxeetara bisitan joateko plangintza aurrera eraman
	Kirol jarduerak	Behin behinean erabaki da, kirol ekimenetara (zumba, pilates eta dantza) hilabeteko klaseetara hiru aldiz huts egiten duenak, ordaindu beharrekoa erdia izan beharko dela. Hilabete osoan huts egiten duenak berriz, ez luke ezer ordaindu beharko. Beti ere, justifikatua izanda eta taldearen ibilbidea arriskuan jartzen ez den neurrian.	Horregatik, behin behineko neurria litzateke eta errebisatuko da egoeraren baten premiak horrela eskatuko balu.
	Abenduko ekimenak	Ekimenak antolatzen hasi eta proposamenak jaso: Euskeraren eguna (abendukoak 3), josteko makinaren ikastaroa (abenduko zubian, 6an), eta Gabonetako ekimenak.(zehazteke)	Deialdiak egin eta hurrengoan Gabonetakoa zehaztu



LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Azpiegitura eta ingurumena</b> <b>(2017/11/25)</b>  Hurrengo saioa: 2017/12/09	Zuntz optikoa	Udalak zuntza etxe guztietara irits dadin kudeaketa laguntza emango du: sinadurak etxez etxe bildu eta astean zehar bukatu zerrenda osatuz.	Movistarri helarazi eta jasotzen ez dituen etxeak ere kontuan har ditzan eskatu
	4G Udaletxean	Euskatelek jarri duen sistema ekipoetan konfiguratzeko Lantek enpresari deituko zaio	Gorka arduratuko da
	Hilerriko iturria	Kontsorzioari alta eskaera egin zaio eta eskaileretako paretan barneratuko da kontagailua	Udal langileak obra egingo du aurrerago
	Beitiko hodia	Ibur berritik datorren lehengo hodi zaharra berrerabili dute Ur Kontsortziokoek Beitira ura bideratzeko. Ondoren bere egoeraz galdetu da eta 70cm diametro baduela eta, egokitzat jo da azpiegitura hau. Eta Txakurtegira Beititik ezarri da.	Gain azalean dagoen hodiarekin zer egin (Itzetik Txakurtegiraino)erabaki
	Eserlekuak	Bidegorrian hurrengo astean jarriko da, erabiltzaileek egokien ikusten duten lekuan. Baita Itsaso inguruetarako ekarri diren beste hirurak ere.	Itsaso ingurukoak non ezarri erabakitzeko toki egokienak prestatu
	Leader deialdia	Dakizkigun bi proiektuak aurkeztu dira: Algiako parke, plazatxo eta komun publikoak; eta Itsasoko Udaletxearen sarrera eta kanpoaldea, eta barruko espazioen antolamendua. Alegiakoa “udalez gaindiko” irismenarekin aurkeztu da Gabiriako Udalaren aldeko agiriarekin batera. Egitasmo bakoitza 100.000€ inguru izango da. Diru-laguntza %60 izan liteke	Ebazpena baino lehenago ere obrak esleitu eta martxan jartzea. Hurrengo deialdirako Itsasoko Udaletxearen teilatua eta ganbara proposatzea
	Zergak	Zerga guztiak IPCaren igoera izango dute (%1,6 ), baina bada udalek duten aukerazko zerga, etxeak berritzeko proiektuei aplika daitezkeenak. Erabaki da bertan errolatutakoei eta bost urtez bertan enpadronatuta izango diren herritarrei ez aplikatzea. Gainerakoei proiektuaren %3,5 ezarriko zaie, orain arte bezala.	Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara emango dira. Fatxada eta teilatu diru-laguntzak hurrengoan aztertuko dira.



**ITSASOKO**  
**UDALA**  
(GIPUZKOA)